**MOTZAK** UBITARTEKO BABES OFIZIALEKO ETXEEN ZOZKETA URRIAN
**GEHIGARRIA** KILIBARREN · **KIROLA** LAGUNAK PILOTA TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko ekainaren 25a/XII. urtea/494. zkia



ALKOHOLDUN EDARIEN KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

# Kalean edatea debekatua

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ **943 74 03 96**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
☎ **943 74 09 02**
☎ **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 29 87**
☎ **679 19 77 47**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**

asteko notizia



## Atzerapausoak

Lan kontuek bereganatu dute nire arreta aste honetan. Batean eta bestean, 'Caballito' Gasteizko enpresa alemaniarrean gertatzen ari den lan-gatazka besterik ez dut entzun egunotan. Eta hori gutxi balitz, 'Izar' ontziolen itxiera ere, gero eta gertuago dagoela zabaldu da azkenaldian. Sasoi gogorrak dira sindikatuentzat, eta oro har, langileria osatzen dugun guztiontzat. Krisiaren izua gure etxeetan sartuta dago aspadian. Elgoibarren, badakigu zer den hori, honezkero hamaikatxo krisialdi jasan -eta gainditu ere bai!- baitugu. Hau guztia aipatu badut, langileen egoerak azken urteotan izugarri atzera egin duen begitantzioa daukadalako da. Ez dakit oso ondo 'Caballito'koei zer gertatzen zaien, eta ez naiz ni hango gerentearen –negargarri samarra dela entzun dut, baina tira- ekintzen epaile izango. Adibide sinple bat jarriko dizuet: ni neu. Azken urteotako lan ibilbideari begiratuta, nire kasua langileen eskubideen atzerapausoen adibide argia da. Kontratua izan dudanean –gaur egun kazetaritzan jarduteagatik inork ez dit kontratua eskaintzen-, oso baldintza kaxkarreko kontratua izan da. Gutxi irabazi, erretentzio txikia, eta ez oporrik, ez paga estrarik. Are gehiago, orain dela urte batzuk, kontratu bat sinatu nuen, eta handik hilabete batzuetara, kontratua amaitu zitzaidanean, berriz irakurri nuen. Harrituta, kontratuaren beheko aldean, 'sin derecho a sindicar' jartzen zuela irakurri nuen. Hurrengo urtean, enpresa berak berriz kontratatu ninduen, baina antza, baten batek esaldi hura handik kentzea aholkatu zion gerenteari. Zorionez, ez dut enpresa horrekin lanik egin berriz ere. Baina ez pentsa nire lan egoerak hobera egin duenik, ezta gutxiagorik ere. Gaur egun, oso zaila da inork kontratatzea, eta lana eskaintzekotan, autonomo lana bakarrik eskaintzen didate. Ez al da zoragarria?

**Ainhoa Lodoso**



## Uda, izerdia eta popak

Etorri zaigu berriz uda, matrikulatu ta ikasleak oporretan, langile sofrituak kapitalak eskaintzen dizkion egun oparoak noiz iritsiko zain, errealitateaz aldentzeko, nahiz ta toki berdinean biraka ibili, hamsterrak lez. Jaiak non nahi, izerdi, garagardo ta purin usaina, nahiz ta gauzak dauden moduan batek daki noiz pribatizatuko dituzten jai guztiak eta debekatu gustuko ez duten dena. Gurean moduan, orain, berriro ere, kalean edatea debekatu nahi dute, gauza bat da kalean edatea ta beste bat pitokeritan ibiltzea, elkarrekin lotuta doazela? ez dut uste. Hobe litzateke jendeari drogak nola erabiltzen diren erakutsi ta beraiek dakartzaten ondorioak zeintzuk diren. Debekuek sekula ez dute mesede egin ez hemen eta ez inon, ala ahaztuta duzue "txuteen" saltzearen inguruko debekuak ekarri zuena? Konparazio arina agian, baina hobe kalean mozkortzea, ez dakit nongo zubi azpiko labarrean konortea galduta egotea baino. Baina udaz ari ginen, ezta? Batzuentzako uda zein negua antzerako; eskurik gabeko aitak eskurik gabe jarraituko du, hala ere bere ezker ukabila zerurantz altxaturik, duintasuna bezain tinko iraunen du, bere buruan ordea betiko kezka, iritsiko ote dira etxera? Inperioko agintariek esan dute, dispertsioarekin berdin jarraituko dutela, dagoeneko aurten 28 autoistripu pairatu dituzte gatibu daudenen senide eta lagunek. Uda honetan, tamalez, berriro ere beraien eskubideen alde hainbat ekitaldi izango dira.

Eta ongi etorria egiteko Espainiar Inperioko lur, aire eta itsasoko armaden burua, Juankar, oraingoan zibilez jantzita eta bere emazte, Sofi lagun zuelarik, Vascongadetara egin dute bisita, bertako presidentea, Juanjo zai zutelarik, amiantoarekin lan egiten duen fabrika bat bisitatuz Llodion eta gero Vitoriako Catedrala bisitatuz, honetatik irtetean euren dotorezia, apaltasun eta herriarekiko duten hurbiltasunetik, Juankarrek bere hatz erreala luzatuz, popatik hartzera bidali gintuen. Pasa den asteburuan lagun batek zioen esaldia eskaintzea besterik ez zait falta, berari, bere sendiari eta bere aurrean burua lotsa gabe makurtzen duten guztientzat "ke te jodan, poko y mal".

P.D. Txori batek logelako leihoan pausaturik, norbaitek dimititu behar omen duen zurrumurrua ekarri dit, egia ote?

**Nestor Fuentes**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....... 5
motz Motz ....... 8
gehigarria ....... 13
kiRolAk ....... 18

2004-VI-25

## Nazi estiloan garbitu nahi dute Elgoibar

- Hasteko, Elgoibarren ez da sekula "botiloirik" egon, hemen beti "litroak" egin dira. Beraz, ea kaxa tontoa ikusteari eta prentsa espainiarra irakurtzeari uzten diozuen, eta ea jerga euskalduna apur bat ikasten duzuen.

- Nire ustez, tristea eta tamalgarria da herri hau gobernatzen ahalegintzen ari direnek hartu duten erabakia, baina, zer espero genezakeen ba eskuineko alderdi batez!

- Dirudienez, udaletxe honentzat, kalean beren poztasun eta tristurak trukatzeko, lan edo ikasketa arazoak kontatzeko, ligatzeko edota dibertizeko elkartzen diren gazteak, gaizkileak izango dira, eskuan garagardo bat izateagatik bakarrik.

- Hurrengo legea tanga bistan ibiltzen diren gazteen aurkakoa izango ote den galdetzen diot nire buruari. Dirudienez, horrek ere traba egiten baitie, hezitzeaz arduratu ez diren semeen etorkizunerako dirua irabazteko lana besterik egiten ez duten "pertsona" amargatu horiei.

- Beste herri batzuetan egiten den bezala, Udaletxeak dohaineko errepresio hori alde batera utzi, eta diru hori gazteengan inbertitu beharko luke. Tamalez, sekula ez dugu diru horretaz baliatzeko aukerarik izan.

- Irakurleok adi egon, izan ere, udaletxe honek daraman erritmoarekin, Sanbartoloetako Txiki Egunean, txaranga eta buruhandiak, "folklore antidisturbios" batzuek ordezkatuko dituzte (badakizue, hainbeste ardo kalean…).

- Osasuna eta anarkia kamaradak!

- Kalea geurea da!

**Sergio Fernandez Picón**
**NAN 15.383.713**

## Sergio Fernandez Picon sasi-anarkistari:

Jakin behar zenukeenez, anarkismoan funtzionatzeko oinarria elkarrenganako errespetua da. Baina zuri, nola eskatuko dizugu inor edo ezer errespetatzea? 1976tik Euskal Herrian bizi arren, oraindik ez duzu euskaraz hitz erdirik ere egiten eta! Jaio eta bizi zaren herriko hizkuntza eta kultura ezagutzera urreratu ere ez zara egin eta! Badakit, hala ere, Gaztetxean zabiltzanez pentsatuko duzula hori nahikoa eta gehiegi dela euskal kulturan murgiltzako… gizajoa!

Anarkoen Eguna ospatu zenutenean, hitz bat bera ere ez zenuten idatzi euskaraz. Zure ekintza guztietan ez dakizu euskarak ezta existitzen duenik ere. Eta hau nik entzuna da: behin udaltzain bat euskaraz zuzendu zitzaizun eta zuk "a mi hablame en castellano" erantzun zenion.

Agian hori izango da zure errespetatzeko eta anarkista izateko era. "Anarkista" bai, baina barnean espainola, ardi beltza ala ardi gorri-horia?

Baina txarrena ez da hori, txarrena da gure herriko batzuk, Euskal Herria asko eta benetan maite duten batzuk, zu eta zu bezalakoak aintzakotzat hartzen zaituztela, ustez "alternatiboak" zaretelako. Ez dakite ondo alternatiba espainolista zaretenik.

Oharra: ea hau itzultzen dizunak (zuk tutik ere ez duzu ulertuko eta) dena zuzen azaltzen dizun.

**M.A.**
**EHNA: X2965056B**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# Urruzunoren begi ezkutua

## Joan zaigu aitxitxa



Zenbat urte igaro dituzu bakarrik zure etxean? Bakarrik edo, amama joan zitzaigunetik zuretzat egun ala gau berdin zelako ia, hasieran batez ere. Gero, egunek aurrera egin ahala, nolabaiteko argitasuna sartu zen etxe txiki horretan. Gimnasiara joan, paseatu eta gure etxera arrautzak ekarri. Zure etxea inork baino hobeto antolatzen zenuen, zuk bakar-bakarrik. Baina barnealde hori, beti liskarrean. Eta beheraldi bat ez bazen orduan anemia zen, bihotzekoa bestela. Ez zenuen askotan egiten irribarre, gu saiatzen ginen baina, zin dagit. Horregatik, kolore oneko aurpegi hori alaitzen zenuenean, guk barre egiten genizun. Eta azken bi hilabeteetan, non izan zara? Erietxean, ebakuntza bat egin zizuten eta zinez saiatu zara aurrera egiten. Zure gogo eta nahi bakarra zen osatu eta bazkari eder bat egitea, guztiaren aringarri. Batak eta besteak zaindu omen zaituzte, eta Donostian joan zara. Nik ez dut ezertan sinesten jada, ostiralean nirekin aritu baitzinen hizketan, gure etxeaz, gure bazkariaz, gure etxera ekarri beharreko arrautzez. Asko sufrituta joan zara, lorik egin gabe gainera. Maite zaitugu, modu berezian beti maite izan zaitugu. Besarkada estua, aitxitxa.

**Ainhoa Lendinez**


ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea** Elgoibarko Udala **Koordinatzailea** Ainhoa Andonegii **Zuzendaria** Asier Orbea **Publizitatea** Amaia Erkizia **Maketatzailea** Jaione Unanue **Gerentzia** Jon Peli Uriguen **Kolaboratzaileak** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **Azaleko esaera zaharra** Gotzon Garateren liburutik **Inprimategia** Gertu Koop. E. **Tirada** 4.22 ale **Lege gordailua** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*


kutxa
DANOBAT
GOITI
ESTARTA

## KEXAK

◆ Emakume batek esan digunez, **orain dela bi edo hiru astetatik, Erretxinditik Mintxetara doan errepidean zuloa dago**: “Erretxinditik Mintxetara doan bide estuak zuloa dauka. Gero eta handiagoa eta sakonagoa egiten ari da, eta autoentzat arazoa larria da, zuloa alde batera utzi behar dutelako, eta aldi berean oinezkoentzat hori oso arriskutsua da. Mesedez, lehenbailehen konpondu dezatela”.



◆ **Emakume batek honako kexa hau helarazi digu joan den astean Nahaste Borrasteri buruz BARRENen idatzi genuen erreportajearen gainean**: “Ez zait oso normala iruditzen, herri mailako proba baten historiala jarri, mutil irabazleen zerrenda osoa azaldu eta neskek parte hartzen dugunik ere ez aipatzea BARRENen. Ez dut esaten irabazlearen izena, egindako marka, urtea. Ez, ez gutxienez parte hartu izan dugula. Horrela ez goaz inora. Herri mailan hau gertatzen bada, nola nahi dugu maila altuagotan nesken kirola goraipatzea eta indartzea. Bestalde, mila esker Kimetz elkartekoei”.




## TXALOAK

◆ Guraso talde batek **Josu Mujika txalotu nahi du, Herriko Antzokian eskainitako ikuskizun ederragatik**: “Joan zen astean Triska dantza Elkarteak eskainitako ikuskizuna benetan polita izan zen, eta Josu Mujika txalotu nahi dugu, egiten ari den lan bikainagatik. Eskerrik asko, eta jarraitu horrela”.

◆ Herritar batek **Ongarri zine kluba txalotu nahi du**: "Ongarri zine klubaren aurtengo denboraldia bukatu da, eta zorionak eman nahi dizkiet aurten egin duten film-eskaintzarengatik: benetan asmatu dutela iruditzen zait. Gaur egungo zinema komertzialaren giro itogarri honetan, batzuei aire freskoa ekartzen digu ostegunero diruan oinarritzen ez den zinema independenteak. Eskerrik asko eta segi horrela."

◆ Emakume batzuk **Haizea Emakume Taldea txalotu nahi dute kurtso guztian zehar egindako ekintzengatik**: "Gutxi izan arren, lan handia egiten duzue, eta benetan eskertzekoa da. Txangoak, zine forum-a, ikastaroak, hitzaldiak... oso interesgarriak izaten dira. Jarraitu horrela!".



## Marivi Agirregomezkorta, Elgoibarko alkatea

# “Ordenantza honekin herritarren

*Duela urtebete hartu zuen Marivi Agirregomezkortak Elgoibarko alkate kargua, eta hasieratik ikusi zuen, larunbat arratsaldeetako arazoari irtenbidea topatu behar zitzaiola. Lan handia egin dute ordutik hona, eta azkenean Elgoibarko "botiloia"ri amaiera emateko ordenantza berri bat onartu dute: "Elgoibarko kaleetan ezin da edan" mezua da ordenantza honen funtsa, eta hori betearazteko 3.000 eurora arteko isunak jarriko dituzte. Marivi Agirregomezkortak azaldu digunez, beraien helburua ez da giroa murriztu edo gazteei edatea debekatzea, Elgoibartarrei bizi kalitate hobeagoa eskaintzea baizik.*



**Badira bizpahiru aste ordenantza berria martxan jarri zenutela. Espero zenuten eragina izan al du?**

Gu pozik gaude, ez baita arazo handirik egon kalean. Udaltzaingoak adierazi didanez, jendea nahiko ondo portatu da azken aste hauetan.

**Azalduko al zeniguke ordenantza honen muina hitz gutxitan?**

Kalean edatea debekatzen du, bai nagusiei eta baita gazteei ere. Bestalde, adin txikikoek ezin izango dute alkoholdun edaririk edan ezta tabernetan ere.

**Eta 18 urtetik gorako batek erosten badio adin txikiko bati, isuna jarriko al zaio?**

Hori da delitu larriena, eta 3000 euroko isuna jarriko zaio.

**600 eta 3000 euro bitarteko isunak jarriko dituzue, ezta?**

Bai. Gure helburua ez da udaltzainentzat auto berriak erostea diru horrekin, ez daukagu isun horiekin aberasteko asmorik, baina 3 euroko isunekin ez genuke ezer lortuko.

**Adin txikikoek, ez dute isunik ordainduko. Zer egingo da kasu horietan?**

Aukera bat da isuna gurasoek ordaintzea, edo bestela ongizate lanak egitea, Gurutze Gorrian, Zaharren Etxean… Nire ustez eraginkorragoa izango da.

**Aste honetan ordenantza hau oraindik martxan ez dagoela zioten kartelak ikusi ditugu kalean, zer daukazu esateko?**

Egunkarian agertu zen ordenantza honi alegazioak egiteko epea zabalik dagoela, eta oraindik ez dagoela martxan, baina guk ez dugu ezer berririk atera. Lege hau aspalditik dago martxan, eta guk apur bat moldatu egin dugu, beraz, gure ordenantzarekin ezin bada erregulatu, lehengo legean oinarrituta jarriko dira isunak.

> **"Lege hau aspalditik dago martxan, guk apur bat moldatu dugu"**

**Zein izan da erabaki gogor hau hartzearen arrazoi nagusia?**

Jende askok tren istripua izan dela uste du, baina gu iazko uztailean hasi ginen arazo honi irtenbidea bilatzen. Udaletxean lanean hasi bezain pronto, kexa mordoa jaso genituen larunbatetako arazoaren ondorioz, eta arrazoia zuten. Gero tren istripua gertatu zen, eta horrek gure lana azkartu egin zuen beharbada, baina arrazoiak herritarren kexak izan ziren.

**Aspaldiko arazoa da hau. Zergatik ordenantza orain?**

Uda momentu egokia da, jende gutxiago ibiltzen delako, eta errazagoa izan daiteke. Irailean bolada berria hasten da, eta orduan gogor jarri beharko gara. Argi eduki behar dute kanpoko gazteek, Elgoibarko kaleetan ezin dela edan.

**Zein da Udalaren helburua?**

Herritarren bizi kalitatea hobetzea da gure helburu nagusia, izan ere, botiloiak ez baitie askori lasai bizitzen uzten. Etxetik lasai ateratzeko aukera eskaini nahi diegu, zaratak murriztu, eta zikinkeriarik ez egotea. Guk ez dugu edatea debekatu nahi, kalean ez edatea baizik. Gazteek ez edatea ez dago gure esku, norberaren etxean egin beharreko lana da hori.

**Ordenantza hau ez al duzu uste bide gogorregia dela?**

Ez. Buelta asko eman dizkiogu gai honi erabakia hartu aurretik, eta denek esan digute gazteei gauzak debekatzea kaltegarria dela, baina dena libre lagatzea ere ez da ona. Ez dugu beste biderik ikusi.

**Ez al dira gazteak botiloia egitera beste herriren batera joango?**

Beharbada bai. Baina hori gertatuko balitz, denon arazoa izango litzateke, eta nik hori nahi dut. Orain arte, Elgoibarko arazoa bakarrik dela uste dute, baina hona etortzen diren gazte gehienak kanpotarrak dira, beraz, arazoa ez da gurea bakarrik.

**Izan al duzue inguruko Udalen laguntzarik?**

Hasieran bai, baina hauen laguntza guztiak epe luzerako ziren, eta guk

# bizi kalitatea hobetzea nahi dugu”





berehalako irtenbidea behar genuen. Heziketa, gazteentzako irtenbide alternatiboak... dena epe luzerako programatuta dago, eta ezin genuen Elgoibar beste urte mordoan kontrolik gabe laga.

**Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiarekin elkarlanean ari zarete irtenbidea bilatu nahian, ezta?**

Bai. Eusko Jaurlaritzak programa hobeagoa eskaintzen zuen, eta drogomenpekotasun plan horretan sartzea erabaki genuen. Baina aurrez, Foru Aldundiarekin lanean hasita geundenez, beraiek egingo dute Elgoibarko ikerketa. Bi ikerketa egitea gehiegizkoa zela iruditu zitzaigun. Hala ere, Jaurlaritzak beste herrietan egiten dituen ikerketen ondorioak jasoko ditugu, eta erabilgarriak badira, Elgoibarren aplikatuko ditugu.

**“Zapatu arrunt batean zerbeza bat eskuan hartuta kaletik joatea debekatuta dago”**

**Udaltzaingoa izango al da kalean ordenantza hau betearaziko duena?**

Bai, udaltzainak ibiltzen dira kalean, baina arazo larriagoak edo borrokaren bat baldin badago, Ertzaintzak hartuko du eskua. Guk ez dugu nahi Ertzaintza kalean edukitzea, baina batzutan beharrezkoa da. Zalantzak neuzkan hasieran, baina duela aste batzuk izan zen borroka eta gero, zuzen jokatu dugula uste dut.

**Kalean edatearen muga non dago?**

Ordenantzan zehaztu dugu dena. Tabernetako terrazetan edan daiteke, eta jaietan txosnak jartzeko baimena emango da. Baina larunbat arrunt batean taberna batetik bestera zerbeza bat eskuan hartuta joatea debekatuta dago. Gure helburua ez da jai giroa murriztea, baina orden apur bat lortzeko, gogor jarri behar gara.

**Denda eta tabernariek ezin izango diete alkoholik saldu 18 urtetik beherakoei. Nola hartu dute hauek ordenantza hau?**

Ondo. Tabernariek eta dendariek, botiloia beraientzat kaltegarria dela adierazi ziguten bileretan. Gazteak edanda daudenean komunak puskatzen dituztela, eta dendetan izaten duten jarrera oso desegokia izaten dela. Denak ados daude.

**Noiz arte iraungo du ordenantza honek?**

Ez dago mugarik. Arazoa konpondu artean jarraitzeko asmoa daukagu. Onena ordenantza martxan dagoela ahaztea izango litzateke, horrek arazoa konpondu dela adieraziko bailuke.

## Ordenantzak, besteak beste, ondorengoa debekatzen du:

- Debekatuta dago, bai salmenta tokietan, bai kontsumo tokietan 18 urtetik beherakoei alkohola banatzea, saltzea eta beraiek alkoholdun edariak kontsumitzea.
- Adierazi egin beharko da adin txikikoek ezin dutela alkoholdun edaririk kontsumitu eta erosi. Era berean, 16 urtetik beherakoak ezingo dira tabernetan sartu.
- Terrazetan edo herriko jaietan izan ezik, ezin izango da kalean alkoholdun edaririk saldu, ezta kontsumitu. Horretarako Udalaren baimena beharko da.
- 18 urtetik beherako ikasleak dabiltzan zentroetan ezingo da alkoholik saldu, ezta 18 urtetik beherakoentzako jarduerak eskaintzen diren tokietan ere.
- Debekatuta dago makina automatikoetan alkoholdun edariak saltzea.
- Establezimendu komertzial guztietan kontrol neurri bereziak hartu beharko dira 18 urtetik beherakoei alkoholdun edaririk ez saltzeko.



# Ubitarteko Babes Ofizialeko Etxeen zozketa urrira arte atzeratu da

## Babes Ofizialeko 99 etxebizitza zozketatuko dira

Ekaineko bigarren hamabostaldian egin behar zen zozketa, urrira arte atzeratu du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza departamentuak. Atzerapenaren arrazoia, proiektu honekin zerikusia duten beste obra batzuen atzerapena izan dela jakinarazi dute Jaurlaritzatik. Trenbide azpitik hasita, Santa Ana kaleko errotondatik San Roke auzoraino joango den bidea egiteko proiektua dago, eta horren atzerapena izan omen da zozketa ekainean ez egiteko arrazoia.

Elgoibarko Udala, proiektu honi dagozkion baldintzak idazten ari da, eta bukatu bezain pronto aterako du lehiaketara. Obrak hasten direnean, lau hilabetetan bukatzea espero dute.

**99 etxebizitza eta 150 garaje**

Bi bloketan banatuta, 99 Babes Ofizialeko etxebizitza egingo dituzte.



Etxebizitza bakoitzak, trasteroa eta garajea izango ditu. Honetaz gain, beste 61 garaje gehiago egingo dira, gero saltzeko asmoarekin. 150 garaje izango dira guztira, eta prezioa merkatuan dauden gainontzeko garajeena baino merkeagoa izango da.

Etxebizitzen diseinua Telletxea eta Fernandez Militino arkitektoek egingo dute, beraiek irabazi baitzuten Visesa enpresak deitutako lehiaketa. Etxebizitza hauek ingurugiroa zaintzeko teknologiak izango dituzte, besteak beste, eguzki plakak erabiliko dira ura berotzeko.

### Ingurugiroari buruzko lehiaketa irabazi dute Ikastolako ikasleek

Agenda 21 programaren barnean, Debegesak mugikortasunari buruzko lehiaketa bat antolatu zuen:trafikoa, oinezkoak eta abar. Debabarrenako edozein herritako ikastetxeak har zezaketen parte. Guztira 5 sari eman dituzte eta horietako hiru Elgoibar Ikastolako ikasleentzat izan dira: Leire Oteiza, Iñaki Etxaniz eta Asier Badiola.Saria forro polar bat eta diploma bana izan dira. Zorionak!



# Josu Lariz aske utzi dute

## 3.000 euroko fiantza ordaindu behar izan du

Joan zen ekainaren 18an atera zen espetxetik Argentinan preso zegoen Josu Lariz elgoibartarra. Espainiako Gobernuak bere aurka eginiko estradizio eskaera atzera bota zuen Argentinako Justiziak, eta 10.000 pesoko (3.000 euro) fiantza ordaindu ostean, aske gelditu zen.

Ekainaren 8an eta 9an izan zen Larizen aurkako epaiketa Buenos Airesen (Argentina) eta joan zen ekainaren 17ra arte atzeratu zen ebazpena. Fiskalak "eskandalugarritzat" jo zuen Larizen aurkako estradizio prozesua, eta delitu gehienak preskribituta zeudela argudiatu zuen. Espainiaratzekotan, bestalde, Gobernuari "berme guztiak" eskatu beharko litzaizkiokeela ere esan zuen fiskalak. Claudio Bonadio epaileak bi argudio hauek izan zituen kontuan, estradizio eskaera atzera botatzeko.



1988an Iparraldetik Uruguaira ihes egin zuenetik, Larizen aurkako hirugarren estradizio prozesua izan da hau. Uruguain zela, bi estradizio eskaera egin ziren bere aurka, eta hiru aldiz atxilotu zuten. Gero, Argentinara kanporatu zuten, eta bertan preso eman ditu azken 19 hilabeteak, aske utzi duten arte.

## Bihar, ekainak 26, bukatuko dira Altzolako San Juan jaiak



Lau egunetako egitaraua bihar, ekainak 26, bukatuko da altzolatarrentzat. Aurtengoan ere egitarau zabala antolatu dute, baina berrikuntza bat aipatzekotan, Pakitori eginiko omenaldia izan da. Pakitok jatetxea zeukan, eta txitxarroa eta sahieskiak prestatzeagatik egin zen famatua. Asteazkenean hasita, ez dute aspertzeko unerik izan altzolatarrek, baina oraindik ere, badago zertaz gozatua Altzolan. Gaur, ostirala, San Juan Txiki Eguna da. Eguerdian herri bazkaria izan da, eta arratsaldeko 19:00etan zezentxo eta poniak izango dira. Gauean berriz, Agirre orkestrarekin dantzaldia izango da. Bihar, ekainak 26, umeen eguna izango da. Jolasak, herri kirolak eta Agirre orkestraren dantzaldiak emango die jaiei amaiera.

## Atxutxiamaika eta Gaz-t aisialdi taldeen udalekuak

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra, udaleku irekiak izango dira bi urtetik bost urte bitarteko umeentzat eta LH 1. eta 2. mailakoentzat. Guztira 100 ume inguruk eman dute izena, eta 12 begirale arituko dira beraiekin jolasean eta eskulanak egiten.

Udaleku itxien atalean, hiru aukera desberdin antolatu dituzte: LH 1,2 eta 3. Mailako 16 ikasle Aubixara joango dira uztailaren 5etik 10era bitartean. Bestalde, LH 4 eta 5. mailako 40 ikasle, Bernedora joango dira uztailaren 11tik 19ra, eta azkenik, LH 6 eta DBH 1 eta 2.mailakoa 17 ikasle, Zangotzara joango dira uztailaren 2tik 11ra.




## Debabarrenako toki turistikoen gida udaletxean eskuragarri

Debegesak argitaratutako “Interes Paisajistikoa duten Tokien Gida” udaletxean eskuratu daiteke euro baten truke. Gida honek eskualdeko hamar bat toki turistiko desberdin deskribatzen ditu, bisitariari argazkiak, ibilbideak, sarbideak, gomendioak, eta interes naturala duten datuak eskainiz. Besteak beste, ondorengo tokiak agertzen dira: Marearteko zabalgunea, Izarraitzeko Mendigunea, Lasturko bailara, Arnoko Mendigunea, Mutrikuko kosta, Aranerrekako bailara, Kalamuako maldak, Karakate-Irukurutzeta mendi-katea, Urko-Akondia, Arrate eta Oiz mendia.

## Elgoibarko planoa osatzeko deialdia

Elgoibarko Udalak Nekar enpresarekin elkarlanean herriko plano gida berrituko du. Gida honetan azaltzeko interesa duten merkatari, enpresa edo beste edozein zerbitzuk, 616 08 35 26 telefonora deitu dezake.

## Haizea Emakume Taldekoek Nafarroa aldera egin zuten txangoa

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Nafarroa aldean izan ziren Elgoibarko 21 emakume, joan zen ekainaren 20an. Besteak beste, Leireko Monasterioa eta Jabierreko Basilika bisitatu zituzten. Bazkal ostean, Erdi Aroko Sos del Rey Catolico herrian izan ziren, eta bertako eliza aurrean atera zuten argazkia.



## 50 urte betetzen dituztenek kinto bazkaria egin zuten



1954. urtean jaio eta aurten 50 urte egingo dituzten elgoibartarrek, kinto bazkaria ospatu zuten joan zen ekainaren 5ean. Meza izan zuten lehenengo San Bartolome Parrokian, eta argazkia atera ostean, Harzubi jatetxean egin zuten kintoen bazkaria. Oso ondo pasatu zutela kontatu digute, eta antolatzaileei eskerrak eman nahi dizkiete.

2004-VI-25

### Espainiako Erregeak keinu zatar bat egin zuen jende artera Gasteizera egin berri duen bisitan

# ZER IRUDITU ZAIZU ERREGEAK EGINIKO KEINUA?



### ANE BEITIA

**38 urte, medikua**

Gaizki. Berak ere adierazpen askatasun eskubidea du, baina bere postuan egonda, erreakzio horiek gorde egin beharko lituzke. Telebista nazionaletan irudi hauek ez ematea informazioa manipulatzea da.



### ASIER SASIAIN

**33 urte, makina erremintako langilea**

Gaizki, erregeak formak zaindu beharko zituen. Ohituta gaude, eta badakigu medioek erregearen inguruko informazioa ezkutatzen dute. Babestuta daukate, eta ez litzateke honela izan beharko.



### JAVIER SAN MARTIN

**37 urte, mekanikoa**

Bera bezalakua, nazkagarrixa. Telebista nazionalek irudi hauek ez emateak argi ta garbi erakusten du ez dagoela informazio askatasunik.



### JOXE IDOETA

**50 urte, mekanikoa**

Oso gaizki, eta gainera ez dut ulertzen erregea zertarako etorri den. Guk ez dugu Euskal Herrian erregerik behar. Espainiako medioei ez zaie komeni irudi hauek ematea, eta hori ez dago ondo.



### AMAIA OÑEDERRA

**37 urte, peoia**

Ez jata ondo iruditzen, baina bere erreakzioa beste edozein pertsonarena bezalakoa izan dela uste dut. Telebista espainolek irudi hauek ezkutatu nahi dituzte, eta erregea pertsona arrunt bat dela azaldu beharko lukete.



### MAITE LINARES

**18 urte, ikaslea**

Hasieran montaje bat zela pentsatu nuen, baina egia bada, oso gaizki iruditzen zait. Telebista espainiarretan interesatzen zaiena bakarrik erakusten dute. Betiko kontua da.


LARRAÑAGA AUTOESKOLA

Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

2004-VI-25




**VICENTE ETA REMEDIOS**
**SURYA BELARDENDA**

# EGUZKIA HARTZEKO PRESTAKIZUNAK

Eguzkia hartu aurretik, azala prestatzea oso garrantzitsua da, erredura arriskutsuak ebitatzeko. Surya belar dendakoek aholku interesgarri batzuk emango dizkigute jarraian.

➼ Eguzkia hartu aurretik barne eta kanpo garbiketa bat egitea komeni da, azala garbitu eta kolore homogeneo eta mantxa ilunik gabea lortzeko.

➼ Norberari komeni zaizkion landare depuragarriak hartu.

➼ Eguneroko dietan karotenodun jakiak eta antioxidatzaileak sartzea komeni da. Frutak, barazkiak, gari germena, garagar legamia…

➼ Azala kanpotik garbitu, alga, oinarrizko olio eta itsas gatzekin. Garbiketa honek zimurren agerpena ekiditen du, leuntasun handiagoa eskaintzen du eta azalaren iragazkortasuna areagotzen du, ondoren erabiliko diren sustantzia nutritibo eta hidratatzaileak hobeto xurgatuko direlarik. Garbiketak 10 edo 15 egunean behin egin behar dira.

**Babestu zure gorputza eguzkitik**

➼ 10 minutuko eguzki hartzeak proteinen metabolismoa estimulatzen du, globulu gorrien produkzioa biderkatzen du, azido urikoa kanporatzen laguntzen du, oxigenoaren garraioa odolean zehar errazten du, D bitamina sintetizatzen du eta animoa igotzen laguntzen du.

➼ Onura hauek guztiak lortu eta erredurak edo intsolazioa ekiditeko, gorputza garbi mantendu behar da, toxinarik gabe eta krema egokiak erabili behar dira. Faktore altua edo totala izaten da komenigarriena, eta beldurrik gabe bota behar da gorputz osoan zehar eguzkitan jarri baino ordu erdi lehenago.



**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**





## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Zure osasunerako erremedio naturalak)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

# nola ALDATU diren gauzak!

2004-VI-25





**2002.** urteko argazkian Errota Berri baserria ikusten dugu, erabat berrituta. Garai batean, etxe honen aurreko aldetik erreka pasatzen zen, eta amuarrainak harrapatzen ibiltzen ziren herritarrak bertan. Gaur egun, erreka desbideratuta dago. Kalean egon arren, baserri hau San Lorentzo Bailarakoa zen, errekak egiten zuen muga, beraz, errekaren beste aldean zegoen guztia, San Lorentzo Bailarakoa zen. Errota Berri baserria, "Marañon" izenez ezagutzen zuen jende askok. Eleuterio Iruretagoiena bizi zen bertan bere familiakoekin, eta "Doctor Marañon" bezala ezagutzen zen. Garai hartako sasi-mediku ospetsua izan zen gizon hau.

**2004**. urtean begira nola aldatu den toki hau! Bi urte besterik pasatu ez diren arren, ingurunea erabat desberdin dago. Errota Berri baserria zegoen lekuan, etxe berriak eraikitzen hasi dira. Etxe ugari egingo dituzte, eta jende asko joango da bertara bizitzera. Honetaz gain, lurrazpiko zabor kontenedore modernoak jarri dituzte bertan. Dudarik gabe, mugimendu handiko gunea bilakatuko da denbora gutxi barru.

**Juanito Gorostiza**

*- Goian bego -*



**JOSE LUIS SORALUZE LIZUNDIA**

*2004ko ekainaren 19an hil zen 52 urte zituela.*

*Benetako euskaldun*
*jatorren kidea*
*beti erabili duzu*
*nekezko bidea*
*zuk ondo bete duzu*
*euskaldunen legea*

**EAKO ALDERDIKIDEAK**

# KiliBARREN

MENDAROKO GEHIGARRIA · 2004ko ekainaren 25a/XII. urtea/107. zkia

## 305 botorekin EAJ izan zen nagusi Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetan

%54,39ko abstentzioa izan zen

Joan zen ekainaren 13an ospatu ziren Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeak, eta 305 botorekin, EAJ izan zen boto gehien lortu zituen alderdia Mendaron. Hala ere, daturik adierazgarriena abstentzioa izan zen: zentsua osatzen duten 1333 mendarotarretatik, %54,39ak ez zuen botorik eman, hau da, zentsatuta dauden herritarren erdiak baino gehiagok huts egin zuen. EAJren atzetik, PSE-EE alderdiak 87 boto jaso zituen, EAk 63, PPk 43, Aralarrek 13, Ezker Batuak 10, eta baliogabeko botoak 75 izan ziren.

EUROPAKO HAUTESKUNDEETARAKO MENDAROKO DATUAK




## Mikel Tarragual mendaroarrak irabazi du Haundiko jokalari erregularrenari ematen zaion Idarraga Saria



Mikel Tarragual 20 urteko atzelari mendaroarrak irabazi du Haundiko jokalari erregularrena aukeratzen duen 7. Idarraga Saria. Partiduz partidu Haundiko jokalari erregularrena saritzen du lehiaketa honek eta mendaroarrak 50 puntu lortu ditu sailkapen orokorrean. Asier Arenas elgoibartarra sailkatu da bigarren postuan 46 punturekin, eta Jagoba Arrasate aurrelaria izan da hirugarren 44 punturekin. Jokalarion erregulartasuna ezinbestekoa izan da Haundik 3. mailara igoera lortzeko.

## Debabarrenako toki turistikoen gida udaletxean eskuragarri

Debegesak argitaratutako "Interes Paisajistikoa duten Tokien Gida" udaletxean eskuratu daiteke euro baten truke. Gida honek eskualdeko hamar bat toki turistiko desberdin deskribatzen ditu, bisitariari argazkiak, ibilbideak, sarbideak, gomendioak, eta interes naturala duten datuak eskainiz. Besteak beste, ondorengo tokiak agertzen dira: Marearteko zabalgunea, Izarraitzeko Mendigunea, Lasturko bailara, Arnoko Mendigunea, Mutrikuko kosta, Aranerrekako bailara, Kalamuako maldak, Karakate-Irukurutzeta mendi-katea, Urko-Akondia, Arrate eta Oiz mendia.

## Kanping irteera Aritzalekura

Arno Guraso Elkarteak kanping ireera antolatu du asteburrurako. Nafarroako Aritzaleku kanpingera joango dira Ikastolako 3,4, 5 eta 6. Mailakoak. Irteera, bihar, goizeko 9:00etan egingo dute Mendaroko tren geltoki aurrean.

## Biolontxelo eta organo kontzertua

Bihar, ekainak 26, biolontxelo eta organo kontzertua izango da Azpilgoetako elizan arratsaldeko 19:00etan. Marta Agirre eta Alejandro Ruiz musikariak bakarka arituko dira, eta ondoren, bost musikariz osatutako taldeak hartuko du parte.

KiliBARREN
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



# Joe Jimenez MAR

## "Nahiago ditut errenazimo egungoak baino"

***Joe Jimenez (1970) Eibarren bizi den mendaroarra da. Artearekin nolabaiteko lotura duen lanbidea du, Eibarko Alfa fundizioan lan egiten baitu metalezko eskulturak eginez, baina lantokitik kanpo duen afizioa, koadroak margotzea, alegia, izan da berarengana eraman gaituena. Egiten duena azaltzea kosta egiten zaio, ez baita erraza arteari buruz berba egitea. Askotan koadroak ikustea izaten da artista baten lana ulertzeko modurik zuzenena. Nahi duzuenok ekainaren 27ra arte izango duzue aukera Mendaroko Arno-Otaerre aretoan (Udaletxeko 3. solairuan). Joe Jimezezen erakusketa amaitu ostean, Aitor Etxeberria mendaroarraren lanak ikusi ahal izango dira uztailaren 2tik 11ra bitartean eta Nori Ushijama japoniarrarenak, berriz, uztailaren 16tik 25era.***

**Noiz hasi zinen margotzen?**
Betidanik gustatu izan zait margotzea. Lapitzezko marrazki asko egindakoa naiz eta nire lehen aro hori oraindik ere igarri daiteke nire koadroetan. Batzuetan koadroek gehiegi marraztuta daudela dirudite. Margolari bezala baino marrazkilari gisa ikusten dut nire burua, nahiz eta batak bestea dakarren.

**Zer ezberdintasun dago marraztea eta margotzearen artean?**
Margolaritza menperatzen dutenek kolorea ere gehiago menperatzen dute. Izan ere, margotzea kolorean oinarritzen da, garrantzi gehiago dauka. Kolorea ongi erabiltzen duen koadro bat oso-oso hurbiletik begiratuta, zerbait abstraktua dirudi. Nik oraindik ez dut kolorearen erabilpena guztiz menperatzen.

**Zein da lantzen duzun estiloa?**
Nire estiloa errealismoaren barruan legoke, baina hipererrealismoa ukituz. Dena dela, ikuslearen interpretazioaren esku lagatzen ditut kontu horiek.

**Zein dira zure koadroetan lantzen dituzun gairik ohikoenak?**
Ez dut denbora larregi galtzen gaien auqeraketan. Gehienetan argazki bat hartzen dut abiapuntutzat, baina une konkretu batean argazkiarengandik independizatu behar da, koadroak bere arima eta sentimendua izan dezan. Bestela argazkia tamainaz handitzea izango litzateke egingo nukeen gauza bakarra. Bestalde, gauza zaharrek asko erakartzen naute, koloreekin eta kontrasteekin jokatzeko aukera gehiago eskaintzen baitute. Komunei buruzko koadro sorta bat ere egin dut.

**"Errealitatetik ihes egiteko modua da niretzat margotzea"**

**Zer da zuretzat margotzea?**
Errealitatetik ihes egiteko modua da niretzat margotzea, baina nire kasuan beste errealitate batean sartzen naiz, margotzen ari naizen koadroarenean, alegia. Denbora segundo hamarren batean geratzea modukoa da. Dena dela, margotzea bizitza modukoa da, batzutan gozatu eta besteetan sofritu egiten da momentuan daukazun gogo-aldartearen arabera. Jarraikortasuna eta diziplina edukitzea garrantzitsua da, batzutan gogorik eduki gabe ere margotu egin behar baita.

**Margolariek estilo propioa izatea bilatzen dute. Bilatu al duzu zuk zurea?**
Hori nire koadroak ikusten dituztenek esan beharko dute. Baina koadro guztiek ezaugarri komun batzuk badituztela uste dut.

**Nabari al da beste margolariren baten influentziarik zure koadroetan?**
Errealismoko margolari asko gustatzen zaizkit. Egia esan azken aldian nahiko ahaztuta dagoen estiloa da, argazkilaritza modan baitago.

**Noren koadroa gustatuko litzaizuke etxean edukitzea?**
Jan Vermeer holandarraren koadro bat esaterako. Gaur egungoak baino nahiago ditut errenazimendu edo barroko garaiko margolariak. Bestalde, gaur egungo margolarien koadroetan eszena

GOLARIA

# endu edo barroko garaiko margolariak






historikoak agertzea gustatuko litzaidake lehengoek egiten zuten moduan, baina argazkilaritza asmatu zenetik bere

**"Egungo margolarien koadroetan eszena historikoak agertzea gustatuko litzaidake"**

gain hartu du ardura hori.

**Non gustatuko litzaizuke zure lanak ikusgai jartzea?**

Edozein hiri handitan, baina jendaurrean jarriko liratekeen edozein lekurekin konformatzen naiz. Mendaron erakusketa jartzeak ere ilusioa egin dit.

**Eta nori egingo zenioke erretratu bat?**

Prest dagoen edozeini, betiere nik esandako moduan azaltzeko prest badago.

**Mendarok koadro batean azaltzea merezi duten txoko eta bazter asko al ditu?**

Nire koadroetan Mendaroko txoko asko ageri dira, baina gehien ezagutzen eta hurbilen nituenak zirelako bakarrik. Orain Eibarren bizi naiz eta industriak aztarna interesgarri asko laga ditu ber-



## Datozen erakusketak

**Aitor Etxeberria**

Mendaron jaioa, 13 urterekin hasi zen margolanean. Uztailaren 2tik 11ra bitartean Arno-Otaerre aretoan erakusgai jarriko dituen koadroak azken hiru urteetako lanaren emaitza dira. Teknika, mihisean oleoa erabiltzearena izan da. Dibujoa eta argazkilaritza gustuko dituela nabari da bere lanetan. Margolariaren hitzetan, "erakusketa honen asmoa, ikusleari, kanpoko mundua aintzat hartzerakoan dudan nire barneko zer hori osatzen duten leiho eta ate guztiak erakustea da".



**Nori Ushijama**

Kumamoton (Japonia) jaioa 1956an. Margolaria lanbidez. Arte Ederretako ikasketak Japonen burutu eta Italiara joan zen hauek osatzera. Donostia izan zen hurrengo bizileku eta gaur egun Bartzelonan bizi da, bertan finkatu duelarik bere estudioa. Japonian, Italian eta Espainiako hainbat artegaleria ospetsuetan ikusgai izan dira bere lanak. Margolariaren aro desberdinak bereizten diren obra zabala du. Ikusgai jarriko dituen lanak azken hiru urteei dagozkienak dira.

# Erretratu zaharra




Hilabete honetako erretratu zaharra **Maialen Olazabal**ek laga digu. 1978. urteko gabonetan, Olentzeroren kalejiran ateratako argazkia da. Mendaroko haurrak, Olentzerori abestera ateratzen dira abenduaren 24an, gauean opariak jasotzeko. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren mendarotar gazteak.

1. **Zigor Txurruka**, 2. **Andoni Egaña**, 3. **Gaizka Lazarobaster**, 4. **Garbiñe Zabala**, 5. **Nagore Iriondo**, 6. **Iraide Loiola**, 7. **Sonia Garcia** eta 8. **Iñigo Urra**.



*I. URTEURRENA*
*2003ko ekainaren 24ean, 90 urte zituela hil zen*
*NARCISO ETXANIZ LARRAÑAGA "PATXO"ren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da*
*larunbata, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



*I. URTEURRENA*
*2003ko ekainaren 28an, 81 urte zituela hil zen*
*ANTONIO ARRIOLA ALBIZUren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da*
*astelehenean, hilak 28, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 25 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 26 | Yudego | Ibañez |
| 27 | Ibañez | Ibañez |
| 28 | Bidasolo | Bidasolo |
| 29 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 30 | Fernandez | Fernandez |
| 1 | Yudego | Yudego |
| 2 | Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
**27 igandea** Ibarrenea

## EuskoTren

**DONOSTIA-BILBO**
Egunero
Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

**MENDARO-ELGOIBAR**
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

## EuskoTren AUTOBUSAK

**BILBO-DONOSTIA**
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

**ELGOIBAR-MENDARO**
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## ELGOIBAR

SIGMA — ARRIAGA

| SIGMA - ARRIAGA | | ARRIAGA - SIGMA | |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulatorioa ....................943 03 26 10
Planning-a....................943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak....................943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) ....................943 46 46 22
Gurutze Gorria ....................943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea....................943 03 28 00
Odol Emaileak....................943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak....................943 74 04 42
PESA (Eibar) ....................902 10 12 10
Taxi geltokia....................943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua....................943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua....................943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ....................943 74 21 58
Mendaroko Udala....................943 75 61 00
Ongizate zerbitzua....................943 74 10 08
Udaletxea....................943 74 10 50
Udaltzaingoa ....................943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra....................943 74 16 26
Kiroldegia....................943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ....................943 74 30 88
Liburutegia....................943 74 35 25
Musika Eskola....................943 74 21 45
Mintxeta ....................943 74 43 15
Parrokia ....................943 74 08 42
Postetxea ....................943 74 15 47
Gaztetxea ....................943 74 35 72
Gazte Informazioa....................943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza ....................943 74 02 96
Zaharren Biltokia....................943 74 05 26
Eguneko Zentroa....................943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola....................943 74 21 41
HHI (EPA) ....................943 74 08 80
Herri Eskola ....................943 74 08 79
I.M.H....................943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ....................943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ....................943 74 80 19
Ikastola ....................943 74 44 41
Pilar Ikastetxea....................943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN....................943 74 41 12
El Diario Vasco ....................943 74 40 73
El Correo Español ....................943 74 10 82
Zazpiki irratia ....................943 74 34 74
Egunkaria....................943 30 02 28
Gara ....................943 31 69 99

# 20.721 euroko defizita izan du C.D. Elgoibarrek aurtengo denboraldian

## Asier Olaizola izango da Haundiko entrenatzaile berria

Joan zen hilaren 22an ospatu zuen C.D. Elgoibarrek urteko Batzar Orokorra Kultur Etxean. Kirol eta finantza arloko hainbat gai azaldu eta eztabaidatu zituzten bertan Jose Luis Insausti presidentea buru duen zuzendaritzak eta bertaratu ziren bazkideek. Kirol arloan denboraldi benetan arrakastatsua izan da aurtengoa: Haundik, jubenilek eta kadeteek mailaz igotzea lortu dute. Diru kontuetan, ordea, gauzak ez dira horren pozgarriak izan 20.721 euroko defizita izan baitu C.D. Elgoibarrek aurtengo denboraldian. Diru sarrerak 126.506 eurokoak izan dira eta 147.078 eurokoak, berriz, gastuak.


Aitor

Argitu beharreko beste kontu garrantzitsu bat egungo zuzendaritzaren jarraipena zen. Zuzendaritzaz arduratuko zen inor azaltzen ez zela-eta, desagertzeko edo Udalaren eskuetara pasatzeko kinka larrian egon zen iaz kluba, baina azken unean guraso talde batek hartu zuen C.D. Elgoibar gidatzeko ardura. Jose Luis Insausti presidenteak beste urtebetez jarraitzeko asmoa duela azaldu zuen batzarrean.

### Entrenatzaile aldaketa

Kirol arloari dagokionez datorren urtean Haundik izango dituen bajak ere azaldu zituen zuzendaritzak bazkideen galderei erantzunez. Gauzak horrela, Ormaetxea, Duarte, Zubiaurre, Egidazu, Dovao, Martija, Jakes, Caro eta Leonardo jokalariek taldea lagako dute. Batzuek futbola lagako dute, talde berria topatu dute besteek eta gainontzekoek klubaren erabakiz utzi beharko dute taldea. Gotzon eta Ibon Lopez jokalarien kasuan zalantzak daude oraindik.

Dena dela, Fran Garagarza entrenatzailearen baja izan da esanguratsuena. Mutrikuarrak bi denboraldi egin ditu Elgoibarren eta taldea 3. mailara igo ostean erabaki du taldea lagatzea. Asier Olaizola izango da entrenatzaile berria. Olaizola Haundiko bigarren entrenatzailea izan zen 2001-02 denboraldian, Joseba Alberdi entrenatzaile zenean. Entrenatzaile nazional tituloa atera berri du eta Jubeniletako Ohorezko Ligan jokatzen duen Zarautzko taldearen entrenatzailea izan da aurten.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

JOSE pinturak
(Txema)

Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Familia, bikote eta banakako terapia

- Harreman arazoak:
  - Familia
  - Bikotea
  - Kideak
- Jarrera arazoak
- Porrot eskolarra
- Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

OREKA PSIKOLOGIA

Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1 - EIBAR

Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

# **Softlan**-en azkena ezagutzen al duzu?

**www.esoftlan.com**



- 13.000 produktuen datuak on-line kontsultatu
- Zuzenean erosi prezio merkeagoak lortuz
- Zure fakturak eta bidalketak berrikusi
- Zure kontuko informazio guztia kontsultatu

## Honetaz aparte...


Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05 • Faxa: 943 74 82 28
E-posta: info@softlan.biz
Web orria: http://www.softlan.biz


Softlan
analisia & programazioa

# Gaur, hilak 25, izango da Nahaste Borraste 19:00etatik aurrera

## Hiru bikoterentzako afariak zozketatuko dira parte hartzaileen artean

Nahaste Borraste edo elgoibartarrok Triatloia ulertzeko daukagun modu bitxia 20. ediziora iritsi da jadanik. Jose Maria Agirrebalzategi apaiz oñatiarra izan zen proba herrikoi honen sortzaile eta bultzatzailea 1947. urtean eta 41 urte beranduago Kimetz elkarteak hartu zuen proba antolatzeko lekukoa. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da lasterketa Plaza Handian eta urtero legez hiru frogatan neurtu beharko dituzte indarrak parte hartzaileek; antxintxika, bizikletan eta zakua bizkarrean hartuta antxintxika eginez. Martin Dominguez, iazko irabazlea eta proba 5 aldiz irabazi duen elgoibartarra, izango da faborito nagusia, baina orain arte erakutsi duen erregetza kolokan jartzeko prest dagoen areriorik ez zaio faltako. Iaz 29 lagunek parte hartu zuten eta ikusi egin beharko da aurten zenbat jende animatzen den. Beti moduan, Kimetz elkartean egingo duten afariarekin emango diote amaiera egunari partehartzaileek. Gainera, Lanbroak emandako hiru bikoterentzako afariak zozketatuko dira parte hartzen dutenen artean.






*Eskuineko argazkian Jose Mari Agirrebalzategi, Nahaste Borrasteren sortzailea. Ezkerrean iazko une bat.*

**Ibilbidea**

Honakoa izango da probaren ibilbidea.

· ***Bizikletaz:*** Plaza Handia, Txankakua, N-634 errepidea, San Antolin, Karkizano gaina, Meliton, Albitxuri, Azkarate bidea, Madala, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia.

· ***Zakuarekin:*** Plaza Handia, San Bartolome, Errosario eta Plaza Handia.

· ***Antxintxika:*** Plaza Handia, Santa Ana, Trenbide kalea, Madala, San Frantzisko, Errosario eta azkenik Plaza Handia.

# 60 haurrek parte hartu dute aurtengo ikasturtean Igeriketa Eskolan



Hil honetan eman zaio amaiera Igeriketa Eskolaren 2003-2004 ikasturteari Olaizaga Kiroldegian. Lau eta hamalau urte bitarteko 60 haurrek parte hartu dute aurten Izaskun Zurikarai irakasleak zuzentzen duen Igeriketa Eskolan. Bost maila desberdin daude eta haurrek maila bakoitza gainditzen dutenean kamiseta bana jasotzen dute, kolore eta izurde kopuru desberdinekin jaso ere, argazkian ikus daitekeen moduan.

# Txurruka, Gurrutxaga eta Lizarralde izan dira Lagunak Pilota Txapelketako irabazleak

## Bestalde, Debarroko Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte Lagunakeko bi bikotek

Joan zen barixakuan jokatu ziren Plaza Handian Lagunak Pilota Txapelketako finalak. Azken hilabeteotan hainbat pilotari gaztetxok parte hartu dute txapelketan eta onenek finalak jokatu zituzten.

Euriaren mehatxua nabarmena izan zen partida guztietan, baina zorionez final guztiak jokatu ahal izan zituzten.

Benjamin A multzoan I. Txurrukak 18 eta 9 irabazi zion I. Amestiri. Benjamin B multzoan, berriz, M. Gurrutxagak 18 eta 16 nagusitu zitzaion A. Muruari. Azkenik, infantil mailan A. Lizarraldek 18 eta 11 gainditu zuen H. Arribillaga.



**Debarroko Txapelketa**

Joan zen asteko alean aurreratu genizuen moduan Lagunak Pilota Eskolako bi bikotek Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatzeko sailkapena lortu dute. Kadete eta jubenil mailako pilotariak izan dira lorpen garrantzitsua eskuratu dutenak eta Eskoriatzako pilotalekuan jokatuko dituzte finalak zapatu honetan, ekainaren 26an. Alde batetik Portu eta Txurrukak Olaldeko pilotarien aurka jokatuko dute kadete mailako finala. Bestalde, Agirrebeña eta Arrietak Eskoriatzako pilotariak izango dituzte aurrez aurre jubenil mailako finalean. Aipagarria da lau pilotarietatik bakarra dela elgoibartarra, Iker Txurruka, hain zuzen ere. Agirrebeña eta Portu mendaroarrak dira eta Arrieta markiñarra.

# Gavarnie eta Ordesako inguruak ezagutu zituzten 45 lagunek Morkaikorekin

Pirineotara irteera izan da Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatu duen azken irteera joan zen asteburuan, eta bertan 45 lagunek parte hartu zuten. Barixakuan Gavarnien dagoen Grange Holle aterpetxean lo egin eta zapatu goizean Gorizeko aterpetxerantz abiatu ziren. Bidean, Roland-eko Ataka gurutzatu zuten eta bi taldetan banatu ostean Taillon (3144 m.) batzuek eta Casco (3006 m.) eta Torre (3009 m.) besteek igo zituzten. Hurrengo egunean, domekan, Monte Perdido (3355 m.) igo zuen bederatzi laguneko talde batek eta gainontzekoak Ordesako aranean behera jaitsi ziren Ehiztarien Bidezidorretik autobuseraino.



### EMAITZAK

**Esku pilota**

**Lagunak Txapelketa**

I. Txurruka **18** – I. Amesti **9 (Benj.)**

M. Gurrutxaga **18** – A. Murua **8 (Benj.)**

A. Lizarralde **18** – H. Arribillaga **11 (Inf.)**

**Futbol 7**

**VI. Bailarako Txapelketa**

Kassima Brewers **1** – CSK de Awair **6**

Mondra kafeteria **0** – Nes-Kas 76 **4**

Pollos Rudos **5** – Malagueña **3**

DVQ Month **1** – Zenileitor **7**

Ladakh **16** – Los niños del melon **0**

Pottokoak **5** – Vedado **1**

Lanbroa boys team **1** – Limaro **6**

Katxal **11** – Txu-ta-gar **3**

Ipartak de Eibar **10** – E-90 **2**

Jaika jatetxe a tope **4** – Inkision **2**

Grasshopers **7** – A.D. Mallabia **3**

Gure Txoko **1** – Vultur Gryphus **1**

## Lana

**ESKAERA**

♦ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **680 74 40 50**

♦ 19 urteko bi neska ekainean eta uztailean lan egiteko prest. ☎ **676 31 65 90**

♦ Emakumea, garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

♦ Neska gazte euskalduna, ekainean eta uztailean lan egiteko prest. Batez ere, umeak zaintzen. ☎ **617 986 068**

♦ Emakumea, garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Asteburuetan ere bai. Erreferentzia onak ditut. ☎ **626 91 49 04 (10:30-18:00)**

♦ Neska etxez etxe manikura egiteko prest. ☎ **610 349 809**

♦ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01 Araceli**

♦ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943 17 28 96 Mertxe**

**ESKAINTZA**

♦ Ondorengo lanpostuetarako jendea behar da: Garbiketa eta sukalde lanetarako pertsona bat, eta lorezaintzarako beste bat. Atzerritarrak ere onartzen dira. Kurrikulumak bidali 166 posta kutxatilara. ☎ **943 17 22 90**

♦ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**

♦ Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko mutila behar da. ☎ **943 74 02 41**

♦ Pertsona bat behar da larunbatetan gaixo bat zaintzeko. 10:30etik 13:00etara, eta 17:00etatik 17:30era. ☎ **657 77 00 79**

♦ Kamarera gaztea behar da asteburuetarako. ☎ **943 74 37 71**

♦ Tabernan lan egiteko neska edo mutila behar da. Astegunetan eta asteburuetan txandaka lan egiteko. ☎ **943 74 28 97**

## Lokalak

♦ Usurbilen, Urbil merkataritza zentro ondoan, 420m²ko lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokia. Lokal argia, ordenagailua askorentzako lekua, eta sarea. ☎ **943 36 30 40**

## Garajeak

♦ Garajea salgai pista beltzean. Bi autorentzako lekua. ☎ **616 50 88 86**

♦ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. ☎ **615 787857**

## Partikularrak

♦ Euskara eta ingeles klase partikularrak ematen dira uztailean. ☎ **943 74 10 91 (Eider)**

♦ Ingeles klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elgoibar eta Mendaron. ☎ **679 11 34 46**

♦ DBH eta LHko partikularrak ematen dira uztailean. ☎ **625 42 05 49**

♦ LHko klase partikularrak ematen dira uztailean. Edozein arlo ☎ **60630756**

## Bestelakoak

♦ Autokarabana alokatuko nuke abuztuan. ☎ **686 882 162**

♦ Bi txakurkume oparitzen dira. ☎ **660 511 781**

## Etxebizitzak

♦ Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan Mendaron. ☎ **669 49 61 73 (Miren)**

♦ Soraluzen etxea salga garajearekini. Berritua, altzariekin. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Alkoba, txokoa, entreplanta. Dena barrutik komunikatua. 144m². ☎ **656 780 748**

♦ Etxea alokatzen du Benidorm-en, Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. ☎ **943 74 20 31/943 74 38 27**

♦ Etxea salgai San Frantzisko kalean. Eguzkitsua, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **699 29 36 13**

♦ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Bateles hondartzan. Iraileko bigarren hamabostaldian, urrian eta ondorengoetan. ☎ **943 81 23 65**

♦ Apartamentua alokatzen da Saloun, paseo maritimoan. Novelty eraikuntza. Aire egokitua, igerilekua eta garajea. Iraila, urria eta ondorengoak. ☎ **943 81 42 38/629 98 98 99**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

♦ Pisua salgai erdialdean. 3 logela, sukalde jangela, egongela. Berritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio ineresgarria. ☎ **661 42 60 77**

♦ Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Igerilekua, hondartzatik 15 minutura. ☎ **628 58 45 35**

♦ Mendaron etxebizitza berria salgai. Garaje eta trasteroa. Altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **696 305 317**

♦ Pisua alokatzen da Benidormen. 15 egun edo hilabete.☎ **607 47 04 75**

♦ Etxea salgai Errosario 27an. 3 logela, sukaldea, komuna, despentsa, ganbara, egongela, 3 balkoi, berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **943 74 02 68/699 179 872**

♦ Benidorm. Apartamentua aokatzen da. ☎ **943 76 38 10 (goizez)/ 943 74 06 28 (iluntzean)**

♦ Etxebizitza salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, bi komun, egongela, sukaldea, trasteroa. Aukeran, garajea trastero handiarekin. ☎ **943 74 41 85**

♦ Santa Klara 20an pisua salgai. ☎ **653 72 30 95**

♦ Atiko bat saldu edo alokatzen da Altzolan. ☎ **943 74 13 39**

♦ Etxea salgai. 4 logela eta egongela. Egoera onean. ☎ **606 706 711**

♦ Etxe eguzkitsua salgai Mendaron. 3 logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berritua, altzariekin. ☎ **645 72 60 90**

♦ Etxea osatzeko pertsona behar da. ☎ **615 76 55 15**

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan. Gutxienez bi logela. ☎ **943 74 35 99/ 675 00 84 97 Mari Jose**

♦ Etxea salgai Jausoro Plazan. 2 logela, egongela-jangela, komuna, sukaldea, balkoia, garajea. 228.000 euro. ☎ **943 74 34 23/626 42 35 91**

## Salerosketak

♦ Peugeot Expert 1.900 diesela salgai. 8 plaza. Prezio onean. ☎ **669 29 34 23**

♦ Peugeot 206 GTI autoaren muelle eta eskape hodia salgai. ☎ **696 89 60 88**

♦ Volkswagen Polo autoa salgai. SS-AC. 80.000 km. 700 euro. ☎ **635 20 88 87**

♦ Audi A4 1.900 TDI Quatro autoa salgai. Egoera oso onean. 70.000 km. 5 urte. ☎ **943 76 64 34 (Peli)**

♦ Egurrezko 7 ate salgai. Bi kristalarekin 82zm. zabaleran. Berriak. Oso merkea. Prezio negoziagarria. ☎ **676 92 94 53**

♦ Renault clio autoa salgai. CDI. Bi urte. ☎ **660 551 534**

♦ Renault Twingo 1.100, 16v. salgai. 25 hilabete, 29.000km. Aire egokitua, airbag, kenwood musika. Berria. Prezio onean. ☎ **639 628 763**

♦ Sofa salgai. 3 jarlekukoa, eta bat relax. Egoera ona. 480 . ☎ **943741262**

♦ Golf 1.600 autoa salgai. Urtebete. 13.000 km.☎ **943742039/620173701**

♦ Kymko Dink Solc salgai. 390 km. Be-

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

## Agurrak



♦ Zorionak guapeton! **Sergio**, muxu handi-handi bat familiakoen partez!!



♦ **Aurori**, bihotz bihotzez, zorionak. Mila esker beti gure ondoan egoteagatik. Etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Sara**, hilaren 23an, 6 urte egin zenituelako. Gurasoen eta ahizpa Mariaren partez.



♦ Zorionak **Adrian**, hilaren 26an, 8 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familiakoen partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Maitane**, hilaren 29an urteak egingo dituzulako. Ondo pasa eguna. Familiakoen eta bereziki, Ionen eta Janireren partez.



♦ Zorionak **Gorka**ri, hilaren 22an, 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki, anaia Ikerren partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Eñaut**, igandean, hilak 27, 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki zure anaia Haritzen partez.



♦ Pozik gaude nota onak atera dituzulako. Segi horrela. Oso ondo pasa! Zure izebak asko maite zaitu.



♦ Zorionak **Josu Urzainki**ri, hilaren 21ean bi urte bete zituelako. Etxekoen partez.



♦ Zorionak **Jon**, zure 7. urtebetetzean. Etxekoen partez.



♦ Azkenean iritsi da zuen eguna! Zorionak Eduren eta Gemaren, eta batez ere, Gorane eta familiakoen partez.



♦ Nekeak neke, bideak luze, baina osorik iritsi zarete. Aupa txapeldunak! Zorionak eta ongi etorri!

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 16:30-20:00*

### JARDUERAK

**Ceutako auzolandegiak**

Ceutako Komunitate Autonomoak 18 eta 30 urte bitarteko boluntarioei zuzendutako auzolandegiak antolatu ditu abuztuaren 17tik 27ra arte. Epea: uztailak 12

**Lasterketa Herrikoia Bilbon**

Igande honetan, ekainak 27, interkulturalitatearen asteko ekitaldien barruan, "GEROA GUREAN" izeneko lasterketa herrikoiaren II. edizioa izango da Bilbon. Lasterketa Uribitartetik hasiko da eta bi zirkuitu ezberdin izango ditu: 10.000 eta 2.500 metrokoa.

**Gay eta lesbianen nazioarteko duintasun eguna**

Ekainak 28, astelehena, gay eta lesbianen nazioarteko duintasun eguna ospatuko da. Elkarte ezberdinek hainbat ekitaldi, tailer, zein manifestazio deitu dituzte Bilbo, Donostia eta Gasteizko kaleetan. Informazio gehiago: www.gehitu.com, www.ehgam.org, www.hegoak.com.

**EHZ festibala**

Topagunea, Eskara Elkarteen Federazioak antolatuta, Ozaze-Mendikotan (Xiberua) Euskal Herria Zuzenean festibala ospatuko da uztailaren 2, 3 eta 4an. Informazio guztia Topagunearen webgune berrian: www.topagunea.org

### IKASTAROAK

**EHUren udako ikastaroak**

Euskal Herriko Unibertsitateak aurtengo uztaila, abuztua eta irailean Donostian emango diren gai ezberdinei buruzko ikastaroak eskaintzen ditu. Egitarauak ezagutu eta matrikula egiteko: www.ehu.es. Izena emateko epea: plazak agortu arte

**Artisautza Deban**

Debako Artisautza Irakaskuntzen zentroak hainbat ikastaro antolatu ditu aurtengo uztailerako. Grabatu kalkografikoa, zurezko eskulturak, zeramika, marmolezko eskultura etab. Epea: ikastaroa hasi baino astebete lehenago edo plazak agortu arte

### LANA

**Musika irakasleak Urnietan**

Urnietako Udalak piano, biolin, tronpeta, saxofoi eta trikitixa espezialitateetako musika irakasleen kontratazioa burutu nahi du. Epea: ekainak 30

**Gizarte-laguntzaileak Errenterian**

Errenteriako Udalak, 3 gizarte-laguntzaile plaza betetzeko lehiaketa-oposaketa antolatu du. Baldintzak: gizarte lanetan diplomatu titulua edo baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: uztailak 8

2004-VI-25

## JAIAK

### ALTZOLAKO SAN JUAN JAIAK

**EKAINAK 25, BARIXAKUA**

(San Juan Txiki Eguna)

14:30 **Herri bazkaria**

19:00 **Zezentxoak eta poniak**

22:00 **Aguirre taldeak alaitutako dantzaldia**

**EKAINAK 26, ZAPATUA**

(San Juan Eguna)

12:30 **Zinta jokoa**

11:00 **Umeentzako jolasak**

12:00 **Herri Kirolak**

18:30 **Dantzaldia Aguirre Taldearekin**

Atsedenaldian, **areto dantzak**

## JAIAK

### IDOTORBE-KO (SAN PEDRO) JAIAK

**EKAINAK 28, ASTELEHENA**

19:00 **Kanpai jotzea eta txapligu jaurtitzea**

21:00**Auzotarren afaria**

**EKAINAK 29, MARTITZENA**

(San Pedro Eguna)

11:00 **Meza nagusia**

Ondoren, **Saizar, Zahatzu eta Armuetak eskainitako luntxa**

14:30 **Auzotarren eta jubilatuen bazkaria**
Egun guztian zehar "Agirrebeña anai-arrebak" trikitilariak

**UZTAILAK 3, ZAPATUA**

16:00 **Manu Alvarezen oroimenezko Motokros proba**

21:00 **Bertso afaria.** A. Egaña, S. Lizaso. Peña-garikano.

**UZTAILAK 4, DOMEKA**

10:30 **Meza**

13:00 **Mintxeta harrijasotzailea eta ahari jokoak**

14:00 **Auzotarren bazkaria**

17:30 **Idi Demak.** Etxeberriko Ezkutuzulo, Itziarko Lete eta Frunizko Aurtenetxe anaiak.

## 25 BARIXAKUA

19:00 **NAHASTE BORRASTE**
Irteera: Plaza Handian
Antolatzailea: Kimetz Elkartea



## 27 DOMEKIA

19:00 **GELATXO ORKESTRAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian









## LEHIAKETAK

**San Bartolometako programaren azala**

Udaleko Kultura Batzordeak, San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako guztiek parte hartu dezakete, eta lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 8a izango da. Teknika librea izango da, baina ezinbestekoa da “Elgoibar, San Bartolome jaiak 2004” testua agertzea. Irabazleak 450 euro jasoko ditu, eta sari berezia 200 eurokoa izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultura zerbitzura deitu daiteke, goizez (943 74 21 58) edo www.elgoibar.org helbide elektronikoan aurkituko duzue argibide gehiago.

## OHARRAK

**Saunaren ordutegia luzatua**

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak astelehen goizetan ere irekiko ditu saunak, erabiltzaileek egindako eskabideei erantzuteko. Ordutegi berri hau ekainaren 21ean jarriko zen abian, eta ondorioz, saunak honako egun hauetan egongo dira zabalik: astelehenetan, eguaztenetan eta zapatuetan, goizez nahiz arratsaldez. Gainontzeko egunetan, arratsaldez bakarrik irekiko dituzte saunak (domeketan izan ezik; egun horretan goizez bakarrik irekitzen baitira instalazioak).

## IKASTAROAK

**Uztaileko ikastaroak Kzgunean**

Kz zentruak hainbat ikastaro antolatu ditu Uztailerako, ikastaro hauek ordutegi ezberdinetan emango dira ahalik eta jende gehien joan dadin. Urtean zehar ikastaro bat egiteko aukera izan ez duenak (arratsaldez bakarrik irekitzen zelako) orain aukera izango du goizez etortzeko. Elgoibarko Kzguneak ordutegi aldaketa izango du uztailean. 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabaldu beharrean, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte egongo da zabalik. Modu honetan, erabiltzaileek ordutegi jarraian erabili ahal izango dituzte Kzguneko zerbitzuak. Honako hauek dira aukeran izangio diren ikastaroak: IT Kzgunea interneten hasteko ikastaroa (20 irdu). Edukiak: Ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, bideokonferentzia, etab. Uztailaren 5tik 16ra bitartean 10:00etatik 12:00etara eta uztailaren 12tik 23ra 8:00etatik 10:00etara. Mintegiak: Fagor Gida gastronomikoa, uztailaren 26an 10:00etatik 12:00etara. Aurkitu zure liburua, uztailaren 27an 10:00etatik 11:00etara. Bat-bateko mezularitza, uztailaren 28 eta 29an, 10:00etatik 12:00etara. Ikastaroetan edo zerbitzuetan interesaturik daudenek Kzgunera joan besterik ez dute egin behar. Telefonoa 943 74 88 28 da. Zerbitzu hauek guztiak dohanekoak dira.

## zine

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**“Vidas ajenas”**

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:30-22:15
27, domekia: 19:30-22:15
28, astelehena: 22:15

**Plaza Handian**

**“Troya”**

2, barixakua: 22:15

**EIBAR, Unzaga**

**“Harry Potter”**

25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:30
27, domekia: 17:00-19:30-22:30
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**

**“Cleopatra”**

25, barixakua: 17:00-19:30-22:15

**“Intermission”**

26, zapatua: 17:00-19:30-22:30
27, domekia: 17:00-19:30-22:30
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

# ZINEA



## "Vidas ajenas"

**Zuzendaria: D.J. Caruso.**

**Antzezleak: Angelina Jolie, Ethan Hawke, Kiefer Sutherland.**

FBIko agente berezi bat (Angelina Jolie) ez da fio hiltzaileak atzemateko ohiko metodoetaz, nahiago du senaz eta intuizioaz gidatu. Serie hiltzaile bat atxilotzeko deituko dute eta bere biktimen izaera eta bizimodua hartzen dituela konturatuko da, baina ez zaio erreza egingo atzematea eta inguratzen duten poliziek ere ez diote asko lagunduko, ez baitira fio bere lan egiteko moduaz.

2004-VI-25



Aste honetako erretratu zaharra Gure Bide Elkarteko bazkide batek laga digu. 1982. urteko erretratua da, eta Ramon Maiztegiri, ondo merezitako omenaldia egin zitzaioneko afarian aterata dago. Egun honetan, urrezko domina eman zitzaion, eta momentuz, Gure Bide Elkartean urrezko domina jaso duen bakarra izan da. 150 lagun inguru bildu ziren omenaldian. Jose Zabala eta Ramon bere semea izan ziren sukaldariak. Jose Zabalak, afaria prestatzeaz gain, omenaldiari amaiera bikaina eman zion, bertsoak kantatuz. Ikus dezagun zein diren argazkian ageri direnak.

Ezkerretik eskumara: **Jose Luis Belloso**, **Ramon Maiztegi**, **Artadi** (sendagilea) eta **Don Pepe Arrillaga (✝)** (sendagilea), **Mari Ezenarro** eta **Jose Zabala**.

Bizkarrez, ezkerretik hasita: **Jaime Ugarte** (Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteko presidentea), **Lete (✝)** (Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteko idazkaria), **ezezaguna** eta **Jose Elkoro (✝)**.

Beste mahaian ikusten dena: **Pedro Gabilondo**.



*ESKERTZA*

*2004ko ekainaren 19an, 52 urte zituela hil zen,*
***JOSE LUIS SORALUZE LIZUNDIA**ren sendiak,*
*bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*ESKERTZA*

***CRISTOBAL LENDINEZ**en senideok*
*eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hauetan*
*gure ondoan izan zaretenoi. Zuen laguntzaz,*
*egun mingarriok eramangarriago egiten lagundu diguzue.*
*Eskerrik asko.*

# BASKO RENT

GARBIKETA
MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA

Tel.: 902 103 287

Sigmako industrialdea - 7 eta 8 pabilioiak

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!

KONPONKETA TAILERRA



MANTENIMENDU OROKORRA
OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA



**ESKAINTZA BEREZIA:**
PNEUMATIKOAK 4 X 3
3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU

MICHELIN Firestone GOODYEAR



MH Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

# TXANDAKAKO INGENIARITZA

**Ateak Zabalik:**

**ekainaren 30ean, 18:30etan**

Bere ezaugarriak eta instalazioak ezagutu itzazu

**Makina Erremintaren Institutua**

Azkue Auzoa, 1
20870 Elgoibar
Tel.: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
ingenieria@imh.es
www.imh.es

cesi

- Lana eta ikasketak tarteka itzatzu 3 urtez
- Lan kontratua formazioaren lehen egunetik
- Enpresarekin elkarlanean prestatutako ingeniaria










AIRE LIBREKO
ZINEMALDIA
UDA 2004
ELGOIBAR
Uztaila
Ostirala 2
TROYA
160 min. / + 13 urte
Larunbata 3
STARSKY & HUTCH
101 min. / + 13 urte
Ostirala 9
Cachorro
99 min. / denontzat
Larunbata 10
GLUP
70 min. / denontzat
Ostirala 16
EL GATO
82 min. / denontzat
Larunbata 17
A CONTRARRELOJ
104 min. / + 13 urte
Larunbata 24
SCOOBY-DOO 2
88 min. / denontzat
Igandea 25
AMANECER DE LOS MUERTOS
97 min. / + 18 urte
Astelehena 26
EURIAREN SEME-ALABAK
86 min. / denontzat
Ostirala 30
50 PRIMERAS CITAS
99 min. / + 7 urte
Larunbata 31
Escuela de Rock
108 min. / denontzat
Abuztua
Igandea 1
El Secreto de los McCann
109 min. / denontzat
Ostirala 6
ATÚN Y CHOCOLATE
95 min. / + 7 urte
Larunbata 7
PAYCHECK
119 min. / + 13 urte
KULTURA SAILA
22:30etan
FORUEN PLAZAN